

Bizkaiko Zubiaren 120. urteurrenarekin bat egingo du Getxoko Liburu Azokak

Getxoko Liburu Azoka apirilaren 20tik 23ra ospatuko da Algortako Telletxe plazan eta Bizkaiko Zubiaren 120. urteurreneko ospakizunekin bat egingo du aurtun. Udal Liburutegiak antolatuta, salmenta-guneak eta hainbat jarduera izango ditu azokak. Ekintzetako batzuk Bizkaiko Zubia izango dute ardatz nagusia. Azoka 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, apirilaren 22an eta 23an izan ezik, egun horietan arratsalde ordu bete lehenago itxiko baita. Halaber, apirilaren 23an goizeko 10etan irekiko da, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Bisitariak, liburuen, komikien eta haurrentzako ipuinen azken nobedadeak erosteko aukera izango dute. Gainera, jarduera anitz izango dira, besteak beste, heldu eta haurrentzako ipuin kontaketak, erakusketak, ikasle getxoitarren jendaurreko irakurketa bat eta egileen sinatze-txandak. Ohikoa denez, Getxoko Kultur Etxearen liburutegiek beren gunea izango dute azokan. Horrela, irakurleei liburuak mailegatzeko aukera eskainiko zaie, eta etxera eraman ahal izango dituzte. Halaber, umeek eta gazteek komiki eta ipuin interesgarriak aurkituko dituzte bertan irakurri ahal izateko. Jarduerei dagokienez, azoka osoan zehar haurrentzako eskulan tailerrak eta jolasak izango dira. Gainera, bi erakusketa antolatuko dira; batean, Bizkaiko Zubiaren argazkiak erakutsiko dira, eta bestean, monumentuaren 120. urteurrena dela-eta izandako orri-markatzaileen lehiaketan aurkeztu diren lanak egongo dira ikusgai. Argazkian, Bizkaiko Zubia.

Getxoko Liburu Azokaren egitaraua apirilaren 20an hasiko da, goizeko 11:00etan, Kids&Us Getxo elkartearen 'Around the World' ingelesezko ipuin-kontakteta saioarekin. Ondoren, 12:00etatik 14:00etara, gonbidatutako egileen sinatze-txanda izango da. Aurtun, honako idazle hauek parte hartuko dute: Fernando García Pañeda, Fede Merino, Javier Moronatti, Guadalupe Oteo, Fernando de Oyarzo, Fredi Paya, Ramón Piñera, Iñaki Prieto, Luis Santamaría eta Manu Torres. Eguneko eskaintza 20:30ean amaituko da, Ernesto Agirrek eskainiko duen 'Cuentos en Fa sostenido' helduentzako ipuin kontakteta saioarekin.

Apirilaren 21ean, 'Cuentos y canciones del otro Algorta' ikuskizuna izango da 13:00etan: Ramon Piñerak Uruguaiako Rio Negro departamenduko Algorta herriaren inguruko pasadizoak kontatuko ditu. Arratsaldean, 18:30ean, 'Ipuinetan islatzen' familia osoarentzako euskarazko ikuskizuna izango da, Iraide Urkiagaren eskutik.

Apirilaren 22an, 'Escuelas de Zabala: 100 años de historia' liburua aurkeztuko du karpan Beatriz Celaya bere egileak, 19:00etan. Azkenik, apirilaren 23an, ikasleen jendaurreko irakurketa bat izango da, lau ikastetxetako 237 ikasleren parte-hartzearekin. Azokaren egitaraua 18:00etan amaituko da Rosa Martinezen 'Errekamari' txotxongilo ikuskizunarekin.